



DIEGO MARTIN



ELENA LLANOS

Zortzikoa (goiko argazkian), andre guztiak egiten dute dantza aldi berean. Kontrapasa dantzatzeko bitartean (ezkerrean), gizonak ateratzen dituzte plazara. Denek elkarrekin fandangoa eta arin-arina dantzatuko dituzte gero (eskuman).



ELENA LLANOS

Egun batez, andreak Deustuko plazaren jabe

XIX. MENDEAREN ERDIALDEAN udalerrri independente zen Deustu, baina, arrazoirentzat batengatik –orduko kronikagileek ere esplikatu ezin zutena–, jaietako egun nagusian, San Pedrokoan zehatzagoak izateko, Bilboko alkatea joaten zitzaizkien agintari nagusiaren plantak egitera. Ez zuten hori gustuko deustuarrek, eta egun hartan ospatzeko askorik ez zegoela erabakita, San Pedro osteko lehen domekara eroan zuten euren jai nagusia. Eguerdiko ekitaldi garrantzitsua zortzikoa zen, baina ezohikoa, emakumeek dantzatzeko zuten eta. Aurrekua, hau da, lehen tokia, herriko emakumezko dantzari onenarentzat zen.

Galdutako ohituraren berri eduki zuten Iñaki Irigoien historialari eta folklorean adituak, *Revista pintoresca de las provincias Bascongadas* aldizkari-ko 1846ko ale batean ikusita, eta Deustuko Bihotz Alai dantza taldeari proposatu zion ohitura hura berreskuratzeko. Baita egin ere. 1999tik, Deustuko Andreen Aurrekua egiten da urtero, aspaldi Bilboko auzo izatera behartutako herrian.

Jai nagusiak Sanpedroetan egiteko ohitura ere galduta dago Deustun. San Jose da orain aitzakiazat jartzen den santua; aurreko Jaurlaritzak lanegun buruzuri izendatu zuenetik martxoaren 19a, egun horren aurreko igandea hautatu dute deustuar andrazkoek plaza bereganatzeko. Joan den igandean ikusitakoaren kronika ere baduzu hau, hortaz.

Aurrekua 1999an itzuli zela esan dugu, baina aurretik, bi urtez, berreskuratzeko lan handia egin behar izan zen. Edo hobe birsortze esatea. XIX. mendeko dantza hartaz *Revista pintoresca*-ko aipua baino ez zutenez, Bihotz Alai taldekoek eta zeregin horretan lagundu zietenek zerbait erabat berri asmatu behar izan zuten. Asmatu edo... Jakin bazekiten behintzat emakumeek behar zutela protagonista; Deustun, ia inon ez bezala, andreei dagokie desafioa eta zortzikoa egitea, eta haiek ateratzen dituzte gizonak dantzara Kontrapasa dirauen bitartean, eta ez alderantziz. Gero, eskualdatzekoan, neskak dantzatzeko mutilaren aurrean, eta neskak opari-

tzen dio txokolatezko gozoki bat mutilari, denek elkarrekin fandangoa eta arin-arina dantzatu eta gero. Koreografia asmatua da, eta urratsak zein doinuak tradizioaren tegi zabaletik aukeratuak. Oraingo urratsak eta XIX. mendekoak ez dira berdinak, noski, baina urtez urte gorde izan diren tradizioen kasuan ere hala izaten da, pentsa...

Dantza talderik ez zegoen Deustun XIX. mendean. Gaur egun bi daude, baina ohitura hau, orduan legez, herri osoarena izan dadin gura izan dute. Horregatik edozein andrazkoek dantzatzeko atea ireki dute. Urtero, Bihotz Alai hiru aste-buruko ikastarotxo eskaintzen du dantzan bereziki trebatuta ez daudenentzat, eta gainerakoa hurreratzeko diren emakumeen esku –eta batez ere, oin– geratzen da. Baita jantzia ere, “tradizional” adjektiboa merezi izateko baldintzak betetzekoan. Hobeto ulertzen da goiko argazkiei begiratuta. ■

Unai Brea

